

txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria 2002 Abendua • 24. zenbakia





▲ ETA NON DIRA HEMEN BARRUAN IBILTZEN DIRENAK?

AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	9
GURASOOK JAKIN DEZAGUN.....	19
GU ERE KAZETARI.....	24
NAHASTE BORRASTE	27



**AURRE MATRIKULA EPEA,
LASTER IREKIKO DA.**

AGUR BERO BAT

**CON EL NUEVO AÑO,
COMIENZA LA PRE-
MATRÍCULA PARA EL
PRÓXIMO CURSO.**

UN SALUDO



HAURTZARO IKASTOLA

DENON ESKURA


Jaione Ugaldebere zuzendaria eta Beñar Kazabon eta Lupe Mendigutxia ikasketaburuak zuzendaritza taldeko partaideak zirela amaitu zuten 2001 / 2002 ikasturtea.

Datozen urtetan Haurtzaro ikastolak izango duen zuzendaritza talde berria, hots, Lupe Mendigutxia zuzendaria eta Jaione Ugaldebere eta Kristina Boan ikasketaburuak, buru belarri ari dira jada lanean.

Eguberriak gainean ditugula, eta honekin batera oporrak, ikastolako langile guztien izenean urtarrila bitarte agurtzen zaituztegu beti ere eguberri zoriontsu eta baketsuak ospatuz.



Eguberri On!!



I R T E E R A K

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H.			
H.H. 2	Urriak 21	Bide gorria	Etxe mota desberdinak ikustera
H.H. 2	Urriak 29	Donostiara "Haizearen orrazia"	Txillidaren artelanak ezagutzera.
H.H. 2	Azaroak 6	Basora	Udazkena: hostoak, gaztainak...bildu.
H.H. 3	Urriak 4	Postetxera	Postetxearen funtzionamendua ikustera
H.H. 3	Urriak 8	Mendibileko txarara	Ezkurak,perretxikoak, gaztainak...biltzera
H.H. 3	Urriak 29	Mendibileko txarara	Hostoak biltzera
H.H. 3	Azaroak 20	Donostiara	Garraio mota desberdinak ikustera
H.H. 1	Urriak 21	Mendibileko txarara	Elkarrekin kalean ibiltzeko ohiturak landu
H.H. 1	Urriak 30	Urkabera	Udazkeneko ezaugarriak aztertu
H.H. 1	Azaroak 22	Herrira	Etxeak nola egiten diren aztertu
L.H. 1			
L.H. 1	Irailaren 23a	Zinemaldia	Filma ikustea
L.H. 2	Irailaren 23a	Zinemaldia	Filma ikustea
L.H. 1-2	Urriaren 2a	Baserrira	Baserrira ezagutzea
L.H. 1-2	Azaroaren 14a	Zinemara	Filma ikustera
L.H. 2			
L.H. 3 -4	Irailaren 23a	Donostiara – Zinemaldia	Zinema euskaraz
L.H. 3 -4	Irailaren 23a	Urkabera	Gaztaina bilketa
L.H. 4	Ekainaren 13a	Hondarribia	Belaontzian ibilaldia
L.H. 4	Azaroaren 6-7-8	Baratze	Ibilaldia
L.H. 3	Azaroaren 6-7-8	Lesaka	Ibilaldia
L.H. 3			
L.H. 5 eta 6	Irailaren 23a	Donostiara – Zinemaldia	Zinema euskaraz
L.H. 5	Urriaren 4a	Karrika – Ergoien	Oiartzun ezagutu. Harremanak sendotu
L.H. 6	Urriaren 4a	Pulliko kaskora	Oiartzun ezagutu. Harremanak sendotu
L.H. 5 eta 6	Azaroaren 25a	Tolosara	20. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia



MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
D.B.H. 1			
DBH 1-2	Irailaren 20a	Listorreta-Sorondo	Mendi irteera. Ikasturte hasiera.
DBH 1-2-3	Urriaren 7a	Zinema:Tximeleten mihia	Etika arloa.
DBH 2	Urriaren 18a	Udaletxera	Herriko artxiboa ikustera
DBH 1	Urriaren 24a	Iruinako Planetarium	Natur eta Gizarte Zientziak.
DBH 2	Azaroaren 15a	Musika museoa. Ergoien	Musika arloa.
DBH 2	Azaroaren 20a	Udaletxera	Erakusketa: 500 milioi urte Euskal Herrian
DBH 2	Azaroaren 19a	Pasaiaiko badia	Zientzia Tailerra
D.B.H. 2			
3-4	Irailaren 20a	Aralar: Guardetxetik Amezetara	Zikloaren topaketa
3	Urriaren 7a	Zinemara:Tximeletaren mihia	Etikako programazioaren barruan
3	Abenduaren 2a	Zinemara: Un niño grande	Etikako programazioaren barruan
3	Abenduaren 5a	Rezola museoa Zientzia museoa	Teknologia – Natur – Gizarte arloetan landutakoa osatzea
4	Azaroaren 8a	Zinemara:American history X	Etikako programazioaren barruan
4	Abenduaren 5a	Gernika museoa (Gernika) Guggenheim museoa	Gizarte eta Arte arloetan landutakoa osatzea

IMANALLA ÑUCA ECUADORMANDAMICANI

ÑUCA LLUTIMI RAFAEL

ÑUCANA NASIRISCA HUATAMI 30 DE OCTUBRE DE 1990

CUNANGA 12 HUATAMI CHARINI Y ESPAÑAPIMICANI

OIARTSUN ESCUELAPIMI ESTUDIAJUNI ÑUCAESCUELALLUTIMI

IKASTOLA ALI AMIGUCUNATAMICARINI TUCUIPIMI AYUDAN

EUSKERATAPALL MI ALLTAHUA YACHAJUJUNI

Y ÑUCA MEJOR AMIGOPA LLUTIMI MIKKEL ALI AMIGUMI TUCUIPIMI

AYUDAN IMATAPALL LLUCCUNA EUSKERAPINICPICA

TRADUSIHUANLLAMI.



HOLA YO SOY DE ECUADOR.

MI NOMBRE ES RAFAEL.

MI FECHA DE NACIMIENTO ES 30 DE OCTUBRE DE 1990.

AHORA TENGO 12 AÑOS Y ESTOY EN EUSKADI. ESTUDIO EN LA ESCUELA DE OIARTZUN.

EL NOMBRE DE LA ESCUELA ES IKASTOLA HAURTZARO.

ESTOY APRENDIENDO EL EUSKERA CADA VEZ MAS.


Y EL NOMBRE DE MI MEJOR AMIGO ES MIKEL.

SI ALGUIEN ME DICEALGO EN EUSKERA EL ME TRADUCE.



LAU URTEKO NESKA-MUTILAK OSO POZIK IGARO DITUZTE OPORRAK ETA GAUZA ASKO IKASTEKO AUKERA IZAN DUTE, GELAN EGIN DUGUN ALDIZKARIAN AZALTZEN DEN BEZALA.

EA, HEMEN ADIBIDE BATZUK!!



▲ JOLASTEN



HERRIAN ▲



KANPOAN ▲



XANISTENABENETAKO HAURTZAROKO TABERNA, ARRAKASTATSU BESTE BEHIN

Iazko Xanistebanetan hasiera eman bagenion ere, aurtengo taberna benetan arrakastatsua izan da. Izan ere, hasiera batean Landetxeko bajoan antolatzeko asmoa bagenuen ere, berehala ohartu ginen Kontzejupe plaza leku ezin hobea zela gure nahietarako: herriko plazatik gertu, nahiko toki, lasaitasuna eta zabaltasuna...

Berehala ekin genion lanari, eta udalari bertan jartzeko baimena eskatu eta gero, eguraldiari beldur genion eta, badaezpada ere, karpa jartzea erabaki genuen. Eta ez edonolako karpa! Erraldoia, jaun-andreok!!



Lan taldea prestatu zen karpari ahal zen etekin handiena ateratzeko asmoz. Eta, gainera, guraso langile ugari eman zuten bere izena. Txandak antolatu eta Xanistebanak iristeko zain jarri ginen, ilusioz beterik.

Hasiera, gauza guztietan bezalatsu, ez zen hain ona izan. Xanisteban bezperako lan taldea ez zen oso handia, karpa, berriz, bai. Eta, afari garaian bezeroak pilatu zitzaizkigun.


Baina bigarren egunetik aurrera hartu genion tamaina eta makina bat otordu zerbitzatu genituen. Izan ere, lehen egunetik bertatik izan genuen demanda handia. Jarritako mahaiak eskas samar, berehala. Gehiagoren bila joan behar genuen egunero. Eskerrak udalari, berari ere hartzen genizkion mahaiak eta kaballetak. Horrela osatzen genituen eta mahai guztiak lepo eginda egunero. Hor daude argazkiak esaten duguna egia dela ziurtatzeko.

Aurten ere atera dugun ondorioa hauxe da: egindako ahalegina merezi izan duela, benetan. Horrela, familiak eta familiak hurbildu ziren karpara, oilasko errea, kostila eta ogitarteko ederrak dastatzera, batez ere ilunabarretan.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du zertan inbertitu lortutako irabaziak (9.413 €). Beste behin ere, Ikastolak erdiz erdi asmatu du.

También este año durante los Xanistebanes la ikastola ha puesto en marcha la cantina. Además, no ha sido una cantina "normalita", ya que una carpa enorme llenaba la nueva plaza de Kontzejupe. Estamos seguros de que con esta cantina, además de aportar ambiente a dichas fiestas y ofrecer un gran servicio para las familias del pueblo, hemos contribuido a conseguir un aporte económico que nos será de gran utilidad para hacer frente a nuestros proyectos. De esta manera, los que conformamos la Ikastola tratamos de utilizar otras formas de financiación.

Un año más, tenemos que reconocer que la respuesta fue magnífica y, así, con las personas que dieron su nombre organizamos el montaje, los grupos, los turnos... Con este proyecto, además de lograr un aporte económico para la Ikastola, hemos logrado crear un nuevo lugar de encuentro y diversión en nuestras fiestas patronales. Con los beneficios logrados, 9.413 €, el Consejo Rector decidirá en qué proyecto se invertirán.



IBILIAZ GOZATUZ, IKASI

Gorputz hezkuntza izango da hau egiteko baliabideetako bat, eta egiten ditugun ekintza eta irteerak berez dakarten gozamenaz gain, Euskal Herria ezagutzeko tresna bikaina dugu. Arloen arteko lotura modu praktikoan gertatzen da eta ikasketak, kasu gehienetan behintzat, gozatzeko bide bat.




Urtero, ekintza eta irteera berriak eskaintzea da gure nahia eta horrela aurtun, ibilaldi dotore batzuk eginak ditugu.

Dbh 1 eta 2. mailakoak Sorondo, Listorreta, Urdaburu inguruan ibili dira.

Dbh 3 eta 4. mailakoak Guardetxe Amezketa ibilaldia egin dute. Ibilaldi neurtua eta gogorra izan da hau, bereziki minetatik aurrera dagoen zatia. Amaieran jendea pozik eta nekatua iritxi zen.


Talde guztiek bete zituzten markatutako denbora eta epeak.

Mendiko irteerei piraguarekin egindako saioak erantsi dizkiegu. Dbh 4. mailakoek Bidasoaren zati baten jeitsiera egin dute; Endarlatzatik abiatu eta Santiagotarrak duten kaiaraino. Beren indarrak neurtu, ibaiaren korranteak gainditu eta gutxi batzuk busti gabe iristeko aukera izan zuten.



Dbh 3. mailakoek orain dela gutxi bukatu dute eskaladako saioak. Goiz bakarra baina bete bete. Beldurrak gaindituz eta banan bana igo eta jaitsi etenik gabe aritu dira. Kiroldegiko errokodromoa leku eroso eta segurua dugu horrelako ekintzak egin ahal izateko.

Eta bukatzeko segurtasuna aipatu dugunez hau bera da aurtengo Osasuna eta Gorputza tailerraren helburuetako bat. Hori lantzeko laguntza eskatu eta lortu dugu. Alde batetik autobabesa mendian landu dugu eta bestetik lehen sorespeneko ikastaro trinkoa egin, diputazioko sustapen kanpainako ikastaroz baliatuz.





MENDIBILEKO TXARARA JOAN GINEN GAZTAIN, HARITZA
ETA PLATANONDO HOSTOEN BILA



ETA BEGIRA ZE GAUZA POLITAK EGIN DITUGUN



KAIXO LAGUNAK:

GU HIRU URTEKO NESKA-MUTILAK GARA. 3 URTEKO GELETAN HASTEKO GOGOA BAGENUEN.

GURASOEI AGUR ESAN ONDOREN, JAKIN NAHI AL DUZUE ZER EGITEN DUGUN IKASTOLAN?

➤ GOIZERO PASILOAN ELKARTU ETA ABESTU.



▲ IPUINAK KONTATU.

▼ EKARRITAKO GOSARIAK BANATU.



▼ TXOKOETAN LANAK EGIN ETA JOLASTU.





◀ BAZKALDU ETA
SIESTATXO BAT EGIN;
KULUXKA BAT, EH !!

▼ PARKEAN JOLASTU.



◀ PSIKOMOTRIZITATE
SAIOAK ERE
BADITUGU...

ETA EGUNERO PRIMERAN PASATZEN DUGU!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!




BI GARREN MAILAKOAK GURE GELETARA
 ETORRI ZIREN IPUINAK IRAKURTZERA.
 OSO ONDO IRAKURRI ZITUZTEN.
 ESKERRIK ASKO IPUINAK IRAKURTZEA-
 BATIK. OSO GUSTORA EGON GINEN.

1go MAILAKOAK



2. MAILAKOEN IRAKURKETA ▶





SANTIMAMIÑEKO KOBAZULOTIK BARATZERA

Laugarren mailakoak, aurten, Baratzeko Baserri Eskolara joan gara hiru egunetarako.

Baserri Eskolara joan aurretik, Santimamiñeko kobazuloa ikustera joan ginen. Kobazuloa liluragarria iruditu zitzaigun. Barruan estalaktitak eta estalagmitak zeuden eta bukaeran zegoena arrautza-ren antzekoa zen.

Bazkaldu ondoren trikuharrietan argazkiak atera, autobusa hartu eta Baratzera abiatu ginen. Iritsitakoan taldeak osatu eta tailer ezberdinetan parte hartzeko prestatu ginen. Hango monitoreak zera erakutsi ziguten:

- Zaldian ibiltzen
- Baserriko animaliak elikatzen
- Erleak zaintzen
- Ogia egiten
- Zura lantzen...

Hurrengo egunean Durangoko ikastetxeakoak etorri ziren eta jokatu genituen futbol partida guztiak... irabazi genizkien!!!!

**OSO ONDO PASATU
DUGU BARATZEN!!!!**

Gainera, irakasleek esan digute gure portaera oso ona izan zela eta oso kontent gaude.

4. mailakoek





HIRU EGUNEKO IBILALDIA LESAKAN

Asteazken goizean Bertizera abiatu ginen. Autobusa matxuratu zen eta beste batera pasa behar izan genuen. Bidea luze xamarra egin zitzaigun eta batzuk mareatu egin ginen. Bertizen aterpean egon ginen euria ari zuelako eta ez genuen ia ezer ikusi.

Handik, Lesakara. Euria goitik behera. Motxilak logelako armairuan hustu eta Lesakatik bueltaxka: Dorretxeak, eliza, erreka, monjetxea, udaletxea, zaharren etxea... eta berriro aterpetxera. Meriendatu eta ikastolako frontoira. Afaldu eta ohera: euri zaparrada, urduritasuna, kazkabarra, tximista, beldurra, mimoak, pixagurea, argia, zarata, trumoia, berriro pixagurea, Beñar eta Anaren ejuak eta builak, masajeak eta... azkenean lo!

Ostegun goizean ondo gosalduta eta lgantzira oinez. Dena malda gora. Batzuk frontoira eta besteak saskigilearengana: 70 urteko aitona, esku handi eta gogorak, gerri bigunak eta saski dotoreak.

Bueltakoan dena malda behera, eta zaparrada ederrak harrapatu gintuen, denok blai eginda iritsi ginen. Arropaz aldatu eta bazkaltzera. Arratsaldean jokoak, marrazkiak, taloak txokolate edo gaztarekin,

eta gero denok dutxara. Pijama jantzi eta afaltzera. Ondoren jokoak, dantzak, pelikula, desfileak, eta... ohera!

Ostiral goizean, gosalduta, motxilak prestatu eta Lesakako errementaria bisitatu genuen. Mailuarekin kinki eta kanka. Gero herriko plazara jolastera. Ondo bazkalduta, dena jaso eta autobusera...

- Oso ondo pasa nuen!
- Dedio, erki pasa dut!
- Taloak oso goxoak zeuden.
- Motxegia iruditu zait.
- Kaka zaharra, iritsi gara!
- Ze azkar pasa den!
- Ze ondo pasa duten baina por fin etxera etorri naiz!
- Ederki pasa dut.
- Kaka!!
- Oso, oso, oso ondo pasa nuen.
- Ze ondo pasa nuen.





- Ze ondo pasa nuen gaua, gehiago pasa nahi ditut talde berdinarekin.
- Por fin etxera berriz!
- Ke guai!!!
- Joolinnn, hor Lesakan gelditu nahi nueeen!!
- Ba zen ordua!
- Hau pena, baina gurasoak ikusteko gogoa nuen.
- Pena handia hartu nuen.
- Pena sentitu nuen momentu horretan.
- Ze pena!
- Juergarako gogoa sentitu nuen.
- Oso ondo pasa nuen.
- Ama, aita eta anaia ikusteko gogo handia nuen.
- Poz handia hartu nuen.
- Autobusera sartu eta ze pena hartu nuen nik, baina ama, aita eta ahizpa ikusiko nituela konturatu nintzen.
- Nik pena nuen.
- Oso pozik joan nintzen aita eta anaia ikusteko gogoarekin.
- Ba nik pena handia sentitu nuen.
- Nik sentitu nuen: alde batetik poza eta beste aldetik pena.
- Oso ondo pasa nuen baino nahiago nuen nire amarekin.
- Ze pena joan egin behar dugu!
- Ze pena joatea!
- Pena hartu nuen joaterakoan baina pozik nintzen gurasoak ikusiko nituelako.
- Berdin zait!
- Ni oso kontentu jarri nintzen autobusean.

3. mailakoek



GAIA: UMOREA

UMOREAREN TEORIAK

Apirilak 11

Tiiiiiiiiiiiiiiii..., azkenean jo du txirrinak. Haize erauntsi erraldoi bat izango bagina bezala, motxilak hartu eta korrika atera gara ikasgelatik. Apirilaren 11 dugu. Ikasketak bukatzeko hiru hilabete falta zaizkit eta hurbil ikusten dut momentua. Etxerantz noa nire pentsamenduetan igeri, aldiz, nire gogoeta batek besteek ez duten lekua hartzen du, hau da: asteburua deitzen zaion atsedenaldi honetan egin beharreko lana.

Nire bizileku den etxebizitza alai eta gorde honetara heldu eta berehala jarri naiz lanean. Nire amonak esaten zuen bezala "Ez utzi orain egin dezakezuna bihar egiteko". Lehenik nire estrategia edo dena delakoa pentsatu dut. Lan hau umoreari buruz denez, zera erabaki dut: Klean eta gure munduan gertatzen diren umore aldaketa ezberdinak aztertzea eta hauei izena ematea. Esan eta egin. Etxe aurreko paper-dendara joan eta blok txiki bat erosi dut. Nire lehenengo teoria hantxe izkribatu dute nire eskuek. Nire orpotek zetorren bezeroak egunkaria hartu du, eta ordaintzera doa. Ikusten zaio presa duela, baina dendako arduradunak lasaitasunez hartu du, bere nagitasuna poltsikotik atera eta martxan jarritz, bezeroa urduri dago, ezer erosi gabe irten da dendatik. Nire lehen esaldiak idatzi ditut:

- 1.- Batzuek duten lana egiteko patxadak, lasaitasunak, besteengan sortzen duen urduritasun edo umore txarra. Bezeroak pentsatzen duena idazten saiatu naiz. "Joan hadi pikutara, asto batek ere hobeto egingo likek hire lana": **Nagiaren teoria.**

Jijiji, jajaja barre egin dut.

Berandu egin zait eta etxera noa afaltzera. Atea ireki dut giltzarekin, nahiz eta nire senak esan didan norbait badagoela barnean. Arrazoi zuen, harrapatu baitut ama, afaria prestatzen eta etxea goitik behera txukuntzen. Gustura hartu ditut haren kroketak eta haren zopa, hala ere, sesioan bukatu dugu: -Ez dudala ongi jaten, ea arropa garbitzea nahi dudan, zerbaiten beharra badudan.... Azkenean joan da. Bloka hartu eta ideiak letraz marraztu ditut bertan:

- 2.- Ama batek, bere seme-alabek dena eduki dezaten gauza asko egiten ditu. Baina beraiek ez dakitena seme-alabei sortzen dieten desesperazio sentsazio da. Ondorioa, desesperazio horrek sortutako **Umore desegokia.**

Jijiji, jajaja barre egin dut. Batzuetan nire lagun bakarra den sofa honetan eseritzen naiz telebistari begira. Baina ohera joatea erabaki dut.

Apirilak 12

Burrundada batek esnarazi egin nau. Zaborraren kamioia da noski. Segituan, blokak imana izango balu bezala, nire eskuak bertarantz erakarri ditu.

- 3.- Umorearen atal garrantzitsu bat amorrutarena da. Adibide argia hauxe dugu: goizetan esnatzen zaituzten soinu ezberdin eta ugariak. Hauek baldintzatzen baitute zure umorea goizean. Kasu honetan ez da oso soinu gozoa. **Esnatu ondorengo umorea.**

Jijiji, jajaja barre egin dut.

Gauzak horrela, jaikitzea izan da erremedio bakarra. Azkenean, gosaldut eta zera esan diot nire koadernoari: "Joango al gara paseotxo bat ematera?" Gaur larunbata da eta parkera joatea otu zait. Banku batean eseri eta erne jarri ditut nire begiak. Jendea korrika, udaletxeokak parkea garbitzen, udaltzaina gizon bati multa jartzen, multa jartzen!

- 4.- Gizona bizikletaz zihoan eta udaltzainak abiadura handiegian joateagatik isuna jarri dio. Txirrindulariak ez zuen kulparik, baina udaltzainak asteburuan lan egin behar duelako eta besteek jai dutelako bere umore txarra inguruko jendearengan kanporatzen du. **Jai egunetan lan egiten dutenen umorea.**

Jijiji, jajaja barre egin dut.

Bazkaldu eta arratsaldeko pelikula zatar eta desegoki guztiak irentsi ondoren, asteko gertakari nagusira abiatu naiz: Errealaren partidurantz. Ez dago egoeira aproposagorik, umore txarrak eta onak, penak eta pozak ikusteko Anoetako estadioa baino! Askoren-



tzat garraioaren paradisua dena hartu, hau da autobusa, eta festa giroaren bihotzerantz abiatu naiz. Nire gauzetan pentsatzen nindoala ia iritsi gara. Ez naiz estadioan sartu oraindik, goiz baita. Tabernako aulki batean eseri eta koadernoan idazten hasi naiz:

5.- *Partidua hastera doa. Bertan gertatuko denaren arabera jendeari umorea aldatuko zaio, onerako ala txarrerako. Irabazi ala galtzearen ondorioaren teoria.*

Bukatu da partidua, etxerantz noa.

6.- *Partidua oso berandu amaitu da, irabazi egin dugu. Umore ona nagusitzen da. Hemen beste teoria: Igandeko partida irabazi ondoren jendea gogo gehiagoz joaten da lanera.*

Apirilak13

Lana bukatutzat eman dut. Garbira pasa eta azken atal bat erantsi diot:

7.- *Lan honetan umore mota, teoria eta suposizio asko falta dira eta honen arrazoia zera da: Umorearen zabaltasunak itsasoak, lurrak, eta unibertsoa ere har ditzake, horregatik ezinezkoa da hiru orri fin batzuetan jasotzea. A! Kalifikazioari buruz hauxe: Maisu edo maistraren umorearen arabera izango da!*

Lo gozo batean murgildu naiz lana egina nuela nekielako.

DBH 3. mailako JON DEL OLMO

5. MAILAKOEK, HARREMANAK SENDOTZEKO ASMOTAN, OIARTZUNGO ZENBAIT AUZO ETA NATURAREKIN BAT EGIN ZUTEN





ANIMALIAK

Txoria kantari
kikiriki eta kikiriki!

Zelaian eserita
ikusi dut hor
asto hegalaria.

Hor dago
aidean txoria
arranoaren hatzaparretan
arrain txikia
duela ahoan.

Lurrean dago
basurdea
erbiaren gainean.
Ondoan daude
bi azeri jolasean.

Katua, lehoiaren
menpean.
Hor dago gazela
gepardoaren
hortz tartean.

Uretan dago
krokodilo
haragizalea.
Tximua berriz,
platanoen atzean
korrika doa.

Oier Carabias
6.B

BAT

Ni mundua izango banintz,
Euskal Herriko jendeari lagunduko nioke.

Euskaldunei lagunduko banie,
mendiak eta animaliak ugarituko nituzke.

Mendiak eta animaliak ugarituko banitu,
elikagai asko izango lituzkete.

Elikagai asko izango balute,
ez lirateke gaixorik jarriko.

Gaixorik jarriko ez balira,
euskaldunak ugarituko lirateke.

Euskaldunak ugarituko balira,
ume gehiago egongo lirateke.

Ume gehiago egongo balira,
euskaraz gehiago hitz egingo litzateke.

Euskaraz gehiago hitz egingo balitz,
ikastola gehiago egongo lirateke.

Ikastola gehiago egongo balira,
gehiago elkar ezagutuko ginateke.

Gehiago elkar ezagutuko bagina,
lagun maitiak izango nituzke.

Lagun maitiak izango banitu,
elkar lagunduko ginateke.

Elkar lagunduko bagina,
denak **BAT** sentituko ginateke.

Leire Etxepeteleku
6.A



IKAS DEZALA BAKARRIK!!

Lehenengo hiruhilabetea pasa delarik, gure seme-alaben eskola errendimenduari berri izango dugu.

Zenbaitzuk opor giroa ezin utzirik, denbora pasa dela eta lanean hasiak izan behar zutela oraintxe ohartuko dira, emaitzekin batera. Zenbat kostatzen den arrastoa sartzea!!!

Lanean hasi behar dute bai, baina lana bakarrik ez. Gure seme-alabei beharrezkoa duten aisialdia, jolas denbora antolatzen lagundu behar diegu. Eskolak ez du haurraren mundu guztia izan behar!

Honekin guztiarekin batera eskolako lanak, etxeko lanak datoz: Zerbait buka-tu beharra, zerbait sakondu beharra, zerbait ikasi beharra... bakoitzak berea.

Baina... Nola egin behar dute? Bakarrik? Eta, zer esan nahi du honek?



Demagun gure seme-alabak irakurketarekin borrokan ari direla. Zenbat lagun dezakeen guk berei irakurtzeak, orain nik, gero zuk, txandaka egiteak edo berek etxean ikusteak senar-emazteen artean elkarri berri bat irakurtzen diela edo batek aipatzen diola besteari: irakur ezazu artikulu hau! Hau da, **elkarrekin irakurtzea**.

Haurrak zailtasun bat gainditu behar duenean, ahalegin bat egin behar duenean, bakarrik egin behar du, baina ez **bakardadean**. Gure eskaerarekin batera gure **laguntza** sumatu behar du eta hori arlo guztietan.

Laguntza beharrezkoa dute adinaren eta beren ezaugarrien baitan (haria erraz galdu, gogo eza...) eta gu ondoan egotea eska dezakete. Ondoan, haria berreskuratzen laguntzeko, ondoan zenbait ariketatan pentsatzen laguntzeko, ondoan animatzeko...

Beste batzuek aski izango dute jakitea hor gaudela, behar dutenerako **eskura gauzkatela**: ama! Zatoz! Bukatu dut! Edo ondo al dago?... besterik gabe esateko.

Baina honen ondoan gurasoek zain egoten ere ikasi behar dugu. Gure laguntzeko gogoari eutsi: Haurrak eska dezala behar duen laguntza. Laguntza eskatzeak esan nahi du lagundua izateko beharra sentitzen dugula eta lagunduko digun norbait badela.

Gurasoen jarraipena, baina iraupena duen jarraipena ere behar dute ez bakarrik kargu hartzeko (*Egin dituzu lanak?*), baizik baita gure **interesa** agertzeko ere (*Zer moduz doakizu? Biharko prestatu al duzu?*). Lagun diezaiozun **plangintza egiten**.

Eskolako lanaren inguruan, laburtuz, zera aipatuko dut:

➤ Adinaren baitan, bakarrik bai, baina **bakardadean ez**.

➤ Gurasoek iraupena eta interesa exijentzia soila ez.

Gure seme-alabek suma dezatela gure interesa eskola errendimendutik harago doala.



Miren Garbizu



HIZKUNTZA PROIEKTUA

- **Helburu orokorra, ikastoletako hizkuntzen trataera integrala diseinatzea da**
- **Hizkuntza Proiektua mamitzeko, lan talde bat sortu zen: Hizkuntza batzordea**



Aurten, Hautzaro ikastola Euskal Herriko beste ikastola batzuekin batera, Ikastoletako Hizkuntza Proiektua diseinatzeko aukeratu dute. Aukeraren garrantzia talde eragilean parte hartzeak duena da berez, piloto izango baita beste bederatzi ikastolekin batera: Nafarroako Paz de Ziganda, Lapurdiko Gure Ikastola eta Piarres Larzabal, Bizkaiko Urretxindorra, Ander Deuna eta Eguzkibegi eta Gipuzkoako Urretxu-Zumarraga, Laskorain eta Jakintza ikastolekin, hain zuzen ere.

Hizkuntza proiektu honen helburu orokorra, ikastoletako hizkuntzen trataera integrala diseina-

tzea da, nor bere errealitateari eta kokaturik dagoen testuinguru sozioekonomiko, linguistiko eta kulturalari egokiturikoa; alegia, Ikastolen Hizkuntza Proiektuak ikastolan lantzen diren hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bilduko dituen eta haien trataerari koherentzia emango dion dokumentua izan nahi du. Baina alderdi pedagogikoaz gain, instituzionala ere landuko da dokumentu honetan, interakzio eta antolaketako helburu zehatzagoak finkatuz.

Epe luzera begira landuko den proiektua da, hiru bat urtekoa izatea aurreikusten baita. Aurten, ikas-



tola bakoitzak bere hizkuntza ereduen diagnostika egin ondoren, egoerari dagokion proiektua definitu eta abiaraziko du. Bigarren epe batean, teoriaren aplikazioa egingo da, eta hirugarren fasean, proiektuaren emaitzaren ebaluazioa.

Une honetan, lehen fasean murgilduta dago Haurtzaro, egoeraren diagnostika egiten.

Hizkuntza Proiektua mamitzeko, ezinbestean lan talde bat sortu beharra zegoen gure organigraman: *Hizkuntza batzordea*. Batzorde honetan ikastolako estamentu guztiek ordezkaturik egon behar dute Hizkuntza proiektuak esparru guztietan eragina izango badu. Horrexegatik, **Ikastolaren Batzordeko** ordezkari bat gutxienez, eta **Zuzendaritza taldeko** beste bat batzordekide izatea beharrezkoa da. Horiekin batera, **eremu kurrikularrak** (arlotako departamentu desberdinak bilduz) eta **eremu ez kurrikularrak** (aisia, kirola eta kultur ekintzen ingurukoak bilduz) dinamizatzaile bana dute eta **Hizkuntza departamentuko** kideen partaidetza zuzena ere bermatu beharko litzateke.

Hartutako erabakiak bideratzeko ardura izango duena dinamizatzaile orokorra izango da. Honen eginkizunak besteak beste hauek dira: proiektuaren arduradun nagusiekin eta beste ikastoletako dina-

mizatzaileekin koordinatzea; ikastolako gainontzeko egituretako elementuen ordezkariarekin loturak ziurtatzea; Hizkuntza proiektuaren plangintza orokorra egin, gauzatzeko bitartekoak definitu eta ezartzea; hizkuntzen trataera orokorra erabakitzea; hizkuntzen funtzioak ikastola barruan, arlo bakoitzeko hizkuntza, hizkuntza bakoitzari eskainitako denbora, hizkuntza bakoitzari eskainitako bitartekoak; urteko hizkuntza plangintza eta dagokion memoria egitea.

Hizkuntza batzordearen **dinamizatzaile orokorra** Kristina Boan da. Ana Gelbentzu eremu kurrikularraren dinamizatzailea eta Axier Bergaretxe eremu ez kurrikularrarena.

Proiektua aurrera eramanez ahal izateko, dinamizatzaileen ordutegian ordu batzuk libre utzi beharrezkoak ziren. Hiruren artean, asteko hamar orduko librazioa dute: Kristina Boanek bost ordukoa, Ana Gelbentzuk hiru ordukoa eta Axier Bergaretxek bi ordukoa. Talde hau asteazkeneko biltzen da ikastolan.

Hizkuntza departamentuko kideak dira: Itziar Arbelaitz, Eva Moreno, Elias Arizmendi, Josune Sainzar eta Kontxi Begiristain irakasleak.

Bukatzeko, azpimarratu behar da Ikastolen Elkar-teak proiektua bere osoan finantziazten duela, irakasleen liberalizazioa eta joan-etorriak barne.

La ikastola Haurtzaro ha sido elegida miembro participante del proyecto lingüístico de las ikastolas. Componen dicho grupo otras nueve ikastolas más.

¿Qué es el proyecto lingüístico de las ikastolas? Es el documento que recogerá todos los aspectos relacionados con la enseñanza y uso de los idiomas que se trabajan en la ikastola y que dará coherencia a su tratamiento. Además del aspecto pedagógico, el documento recopilará también el área institucional,

delimitando objetivos específicos de interacción y organización.

Está previsto que el trabajo se desarrolle en tres fases, de las cuales nos encontramos en la primera, en la etapa de realizar el diagnóstico de la situación lingüística.

Para la elaboración del documento, se ve necesaria la formación de una Comisión lingüística. Dicha comisión deberá estar formada por un miembro del Consejo rector, uno de Dirección, un dinamizador encargado del área curricular, un dinamizador encargado del área no curricular y por los miembros integrantes del departamento de lenguas.

El encargado de coordinar esta comisión lingüística será un dinamizador general.



TXIRRISTA 1-2 urteko haurren gelan





Gure gelako txoko batean txirrista bat dago. Egurrezkoa da eta goian badauka espazio karratu bat balkoiaren modua egiten duena. Azpian berriz, txoko polit bat geratzen da, haurrak hantxe intimitatean egon ahal izateko.

Egunean zehar neska-mutikoak ibiltzen dira gora eta behera. Txirrista honek hitz egingo balu gertakizun asko kontatuko lizkiguke, bertan zer gertatzen den, zer bizitzen duten haurrek, sentimenduak: poza, tristura, frustrazioa...

Umeen gaitasunak areagotuz doazen neurrian eta eurek, euren burua gai ikusten dutenean txirristara hurbiltzen dira; poliki-poliki eskailerak igo eta gora iristen direnean a ze poza islatzen dena beren aurpegian. Barandari heldu eta balkoitik begira balira bezala bere lorpenaren partaide zuzenak egin nahi gaituzte, harro-keriaz guri deituz. Gu, hezitzaileok ohartzen gara eta beren pozarekin bat egiten dugu.

Hurrengo pausoa izango da txirristatik jaitea eta hau gertatu bitartean behin eta berriz igoko dira eta goian gelditu. Hasieran gure laguntzaz jaitsiko dira. Uiiiiiii... a ze nolako sentazio polita!! Prozesu hau ez da nolanahikoa: zaila egiten zaie ongi kokatzea eta ondoren txirristatik jaitea, askatu eta beren burua behera botatzen uztea. Errepikapenaren bitartez eta beren burua ziurrago ikusten dutenean bakarrik jaisten hasten dira, normalean etzanda sabelaren gainean. Behera iristerakoan, bakarrik jaitsi direla ohartzen dira, harridura eta poza elkartuz preparatzen dira berriro gora igotzeko.

Haurrak askotan topatzen dira txirristan, eskailerak igotzerakoan eta goian dagoen espazioan. Ume bat jaisteko preparatzen ari denean besteek zain egon behar dute; itxoin behar dute, elkarren ondoan suertatzen dira, elkar ukitzen. Istiluak sortzen dira bai, bai normala da. Kontuan hartzen badugu gelditu gabe ari direla igo-tzen eta jaisten eta beti berak egin nahi duela, laguna kontuan hartu gabe. Gerta daiteke ume bat poliki doala, besteak azkarrago joan nahi duela... zanpatzen du; besteren bat txirristan trabatzen da ezin jaitsirik, ondorioz



besteak ezin dira pasa. Oso gustukoa dute txirristatik igotzea eta lagunak jaisten direnean erdian topo egin eta bitakoren batek min hartzen du...

Zenbat gauza gertatzen diren eta zenbat egoera sor daitezkeen honen inguruan!!! Gure presentzia beharrezkoa da. Gure begirada askotan zuzendu behar dugu txirristara bertan gertatzen ari denaren testigu izateko. Arrisku egoerak aurreikusten ditugunean ekidin edo ebitatu behar ditugu.

Elkarren arteko harremanetarako toki aproposa da, goian elkartzen direnean jolasa abiarazten dute, balcoitik begira harrokeriaz begiratuz edo pilotak behera boteaz besteek jaso ditzaten...

Txirrista!: zenbat maite zaituzten haurrek!!!

Zer ote daukazu haurrak behin eta berriz zure inguruan mugitzeko gora eta behera ibiliz? Zuri esker, haurrak jolastan diren bitartean hainbat gauza lantzen eta ikasten ari dira: itxaroten, txandak errespetatzen, elkarrekin jostatzen, elkar zirikatuz jolasak asmatzen, haur bakoitzaren gaitasunak zein diren deskubritzen, euren gorputza gero eta gehiago kontrolatzen...

Benetan gure gelako parte handi bat zara.

Kontuuuuuuz.....banoala beheeeeeeraaaaa...!!



Iosune Cousillas



ESTEBAN AGIRRE: G.I.E.ko IDAZKARI BERRIA


"Seme alabek bultzatu gaituzte gauza asko erabakitzaera"

"Ez nintzan hortaz konturatu, baina erronka zalea naiz"

Esteban Agirre Xaputarra dugu jaiotzez, hots, azpeitiarra. Hainbat tokitan ibili ondoren orain dela bederatzirte Oiartzuna etorri zen bere familiarekin. Herri txiki, giro jatorrekoa eta inguru euskalduneko nahi baitzuen bere seme-alabak hezteko.

Alaba baten eta seme baten aita, Haurtzaro ikastolako gurasoa eta idazkari honetako lankide izana da.

Lanbide bat baino gehiago izan du eta memento honetan G.I.E.n (Gipuzkoako ikastolen elkarte) idazkari lana betetzen ari da.



Kaixo Esteban. Zure bizitzan zehar gauza asko egin dituzu. Horietako bat irakasle bezala aritzea izan da. Hasiera batean Don Bosco ikastetxean eta Zurriola Ikastolan gero. Zein oroitzapen dituzu?

Don Boscon orain dela 25 urte aritu nintzen irakasle lanetan eta 5 urte egin nituen bertan. Hemendik Zurriola ikastolara joan nintzen lanera era bitxi batean, ez bainuen aldatzeko asmorik. Don Boscon irakasle lagun bat Ikastolako gurasoa zen. Hark euskara eta erlijio (erlijio inguruko kultura) arloei ematen nien ikuspegia ikusita eta ikastolan zenbait arazo zituztenez arlo hauen inguruan, bertan lan egitea proposatu zidan. Gurasoei ikuspegia azaldu eta aurrera egin nuen. Proiektu polita eta apustu interesgarria izan zen: Inguru erdaldun batetik euskaldun batera pasatzea zekarren eta, gai haietaz ezer ez zegoenez, bide berri bat ireki behar zen.

Irakaskuntzako oroitzapen onenak horiek izan ziren. Irakaskuntza erregelatuta batetik irakaskuntza esanguratsu eta hezitzaile batera

pasatzea izan zen. Ikustekoak ziren gaztetxo haiek egindako lanak. Nik esaten nuen "Joaten naiz ikastolara, ondo pasatzen dut, eta gainera dirua ematen zidatek". Zer gehiago eska nezakeen?

Orain ere ikastola batean zaude, beste eginkizun batean gurasoaren. Horretaz gain zerk lotzen zaitu Haurtzaro ikastolara?

Gure seme-alabak haur eskola utzi ondoren argi genuen Haurtzarora ekarriko genituela. Guretzat hezkuntza oso gauza inportantea da. Profesional on batzuen esku utzi nahi genituen eta guk ere parte hartu hezkuntza horretan. Eskola Publikoan profesional onak ere badaude baina, gurasook, legeak dienez, hitz kontsultiboa besterik ez dugu eta guk partaide osoak izan nahi genuen. Hori da Haurtzarok eskaintzen diguna: Profesionalekin batera, denok karro berean tiraka jardutea.

Gure parte hartzea ere azaldu nahi genuelako sartu ginen Gurasoen Eskolan, Txinparten, ikastolak

dituen proiektuetan lankidetzan... Hezkuntzan parte hartzea guretzat oso inportantea da eta ez bakarrik etxeko hezkuntzan.

Duela gutxi lan berri batean hasia zara eta honek, nolabait ere, ikastolekin lokera du. Aurrez egindako lanekin ere lokerarik badu?

Zerk bultzatu nau G.I.E. idazkari izatera, saltsa honetan sartzera? Gure nahi bat da guraso bezala ikastolaren proiektu horretan parte hartzea, partehartzaile bezala hor egotea, eta etorri zait aukera ekarpen txiki bat egiteko. Euskal jendeak, gurasook, profetionalek sortu dugun proiektu bat baldin bada ikastola, bertan parte hartuta, zerbait egin dezakegula uste baitut.

Oso pertsona normala naiz, ez dut espezializazio berezirik, hori bai, talde batean lan egiten badakit eta orain nagoen lekuan taldean ari gara. Ikastoletara joaten naiz bertakoei entzutera, ez noa soluzioak ematera entzutera baizik eta gero denon artean irtenbideak bilatzen saiatzen gara. Ez dut bulegoan geldit-



tu nahi, ikastolekiko kontaktua galtzeko beldurra baitut, baina hainbeste lan dagoenean pertsona baliabideak alboan edukitzea behar da (eta hori beste gai bat da).

Esan diguzun guztia kontuan hartuta zera esango genuke, erronka zalea zarela, erronka jotzen badizute zuk hartu egiten duzula.

Ez nintzan hortaz konturatu baina agian baliteke. Gogoan dut Zurriola ikastolako lan hura hartu nuenean uda osoa gaia itzultzen, egokitzen eta prestatzen pasa nuela.

Sormenezko gauzak gustatzen zaizkit. Egindako bideak jorratzea gustatzen zait baina bide berriak sortzea ere gustukoa dut. Oraingo lanean ere antzeko gauza gertatu zait. UEMAn egon naiz euskarako teknikari bezala eta Ikastolen Elkartek deialdia atera zuenean, lankide bati proposatu nion eta hark ez zuen ikusi berarentzat izan zitekeenik. Ustekabeen beste leku batetik, beste pertsona batek, niri proposatu zidan. Pentsatzen hasi

eta atera egin da. Hasi berria naiz eta gustura nago. Ilusioz ari den lan talde bat topatu dut, lan orduz gain euskararen alde eta ikastolen alde emateko prest dagoena eta niri hori gustatzen zait, euskarari militantzi puntu hori ematea gustatzen baitzait.

Egin dituzun lan guztietatik zeinekin geldituko zinateke?

Denak oso gustukoak izan ditut. Bat aukeratu behar badut, orain arte aipatu ez den batekin geratuko nintzateke. Urte askotan Arantzazuko frantziskotarren talde bateko partaide izan naiz. Lan bat aurrera ateratzeko elkartu ginen (eta hasieran ez genekien nondik nora joan behar zuen). Pertsona talde bat elkartu ginen, asko ez genekienak, baina elkarrekin lanean hasi ginen ezer ezetik hasi eta orain dela gutxi 20 urte bete ditu talde horrek. Orain dela 10 urte nik taldea utzi nuen, baina aurrera jarraitu du talde horrek. Oso argi genuen proiektu hura pertsona bati lotua ezin zela egon, lankidetzari baizik. Lan honetaz arro nago.

Bukatu aurretik zeuk sortutako atala bete araziko dizugu:TXINPARTAK

Hezi: Landare bat.

Ikasi: Inoiz bukatu behar ez duen zerbait.

Irakasle: Txikitan irudi bat orain beste bat.

Hautzaro: Ni sartuta nagoen barko bat.

Euskara: Nire mila lanetan alde batetik eta bestetik sartu den hizkuntza.

Ikastola: Euskal Herriko jendeak sortu duen ezin saihestuzko erakundea.

Oiartzun: Gure seme-alaben herria.

Azpeitia: Ni azpeitiarra naiz.

Geroa: Ikastola.

BELAONTZIAN IBILALDIA

Kaixo lagunok!

Gu LH 4. mailako ikasleak gara eta animatu nahi zaituztegu "Kuluxka" belaontzian ibiltzera, guk egin genuen bezala. Horretarako, Hondarrabira joan behar duzue.

Eguraldia txar samarra egokitu zitzaigun, baina halere, ongi pasatu genuen denok. Hura ibilaldia!

Belaontzian ibili ondoren, hondartzan jolastu ginen eta hondarrezko krokodilo eta dortoka erraldoi bi egin genituen, argazkian ikus daitekeen bezala.

Ibilaldi hau egitera anima zaitezte eta edozer xehetasun jakin nahi izanez gero, gurekin harremanetan jarri besterik ez duzue.

Guk ibilaldi honetan asko disfrutatu genuen eta gainera, gure mailako Uxueren gurasoei esker bidaia dohain izan zen.

ESKERRIK ASKO!!!!





AHAL DA?

Kaixo denoi!:

Zer moduz doakizue ikastaro berria? Honezkero martxa hartua, ezta?

Ba gu, lehenengo egunetan, urduri xamar geunden eta ezin egona genuenez irakaslearengana hurbiltzen ginen eta "ahal da komunera joan?", "ahal da marrazki bat egin?"... Horrelako esaldiak esaten genizkion. Eta irakasleak, oso aurpegi arraroa jarriaz zera zioen:

- Zer da hori?, ez dut ezer ulertzen!- Eta guk:

- Ia komunera ahal den joan.

- Zeeer?- berriro.

- Ea komunera joan daitekeen!

- Nork joan nahi du komunera?

- Ba nik- erantzun zion Enekok.

- Ba orduan "komunera joan al naiteke?" esan beharko duzu, ezta?

Hurrengo egunean, erditik banatutako esaldi batzuk ekarri zizkigun eta esaldi horiek lotzen aritu ginen. Esaldi horiek gelako atean jarri ditugu eta horrelako zerbait esan behar diogunean hortxe daukagu "txuleta", baina jadanik, begiratu gabe ere, ondo ateratzen zaizkigu.

Zuek ere esaldi hauek nola lotuko zenituzketen jakin nahi genuke, ea zer moduz moldatzen zareten:


1- Hamaiketakoa hartu	al gintezke?
2- Pilota etxera eraman	al dezaket ?
3- Margotu gabe utzi	al naiteke ?
4- Frontoian baloian ibili	al dezaket ?
5- Marrazki bat egin	al daiteke ?
6- Arbelean margotu	al naiteke ?
7- Komunera joan	al dezaket ?
8- Gelan gelditu	al gintezke ?
9- Ura edatera joan	al daiteke ?
10-Kartetan ibili	al dezaket ?
11-Telefonoak deitu	al gintezke ?


Erraza, ezta? Beno, agur eta beste bat arte.

3. mailako ikasleak.



Nondik nora joango da Kris Doraemonekin elkartzeko?





NOR DA?



1. Sudur handia dauka


4. Ile luzea du

Egilea: Eneko Bengoetxea

2. Bibotea du

5. Txirikordak ditu

3. Ezpatarik ez du



Pieza hauetako bat ez da marrazkikoa. Zein?



MANTXUT MANTXUT

IZENBURUA: Mantxut Mantxut

IDAZLEA: Asisko Urmeneta




LABURPENA:

Txiste askotako ipuina da. Denetako txisteak daude. Momentu onak pasako dituzue. Zein izango da gehien gustatzen zaizuna? Irakurri eta esan.

IRITZIA: Niri asko gustatu zait. Hoberenak 6-7 horriko txisteak izan dira. Baita ere 26-29 horriko txisteak.

Irakur ezazu!!!



POZALAGUAKO HAITZULOAK

NOLA IRITSI

KARRANTZAKO BAILARA Escrita mendateko gaina harrapatu orduko Karrantza aldeko ikuspegi ederrak bata bestearen atzetik etorriko zaizkigu, baina onena zera duzue, kilometro eta erdi jaitsi eta eskuinerantz El Suceso auzora doan bide asfaltatua hartzea. Izen bereko atse-denlekura iritsiko gara, zezen plaza, askaldegizabal eta zelai lasaigarrietara. Baina batez ere, hau guztia zeharkatuz, El Sucesoko Andra Mari baselizatxo-begiratoki zoragarria topatuko dugu. Karrantzako bistarik ederrenak (benetan izugarriak) bertatik ikusiko dituzue.

Berriz ere Karrantzako "erdigune"-rantz zuzentzen gaituen errepide bakarrean, laster, bisitatu berri dugun mirarira igotzen den bigarren bidea ikusiko dugu. 43,5. kilometroan El Callejo auzo-herritxoa dago.

Berehala Karrantzako beste auzoetako bat zeharkatuko dugu, Ambasaguas, alegia. Izenengatik konturatuko zaretenez, Bizkaiko ingururik erdaldunenean gabiltza. Hemen ere zuzen segituko dugu. 3 kilometro geroago, Pozalaguako kobak ondo seinalizatzen dituen eskuineko bidea hartuko dugu.

Paraje arrokatu horretan bete-betean sartzen garelarik, 2,5 kilometrotara Pozalaguako haitzuloetako sarrera metalikora iritsiko gara, etxolatxo baten ondoan. Barruan zain, formarik harrigarrienak sortzen dituzten Europako estalaktita eta estalagmiten bildumarik interesgarrienetakoa.

POZALAGUAKO HAITZULOAK


Raneroko auzotik gertu eta izen bereko haitzaren pean, lurpeko altxor hauxe dugu. Ate txiki batek 225 metroko luzera duen haitzulo izugarriako sarrera egiten digu. Nahiz eta Eus-


kal Herrian bertan ezagunegiak ez izan, antzekoen artean munduko ederrenetakotzat dauzkaten haitzulo hauek munduan dauden estalaktitarik bitxienetakoak erakusten dituzte.

Karstifikazio prozesuan dagoen kobazulo honetan milaka estalaktita eta estalagmitak osatzen duten ikuskizun harrigarria mirets dezakezue. Esaterako, bere galeria nagusian munduko estalaktita eszentrikoen (perpendikularki jaitsi beharrean zuhaitz adarrak bezala zabaltzen direnak) kontzentrazio handiena ikus dezakegu, "Versalles gela" izenekoan.

Hala ere, nahiz eta sekulako garrantzia eduki, 1957an alboko harrobian barrenu batek eztanda egin ostean kasualitate hutsez aurkitutako haitzulo honek urte askotako ahaztura, lapurreta eta suntsipena pairatu behar izan ditu. Azkenik, instituzioek konpondu eta 1991n bisitarienetzako zabaltu zuten, 50 milioi urtetan zehar eratutako paraje harrigarri honetaz gozatu ahal izateko.

Bisitaldiak: Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 17:00ak arte. Taldeak egunero 94-680 60 12 telefonoan erreserbatuz.





Pozalaguako haitzuloa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiartzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



BIO ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Poligono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250

Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR



Empresa
Registrada
ER-424/2/96

SEAT

Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Bianditz, C.B.

Txapa eta pintaketa
Diagnosia
Salmetak
Mekanika

Altzibar auzoa - Artikutza Bidea z/g • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 08 46 - 943 49 12 23 • Faxa: 943 49 08 46

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA